

CHARLES DARWIN

NATURALISTA ingeles hau Shrewsbury-n (Shropshire-n) jaio zen 1809. urteko otsailaren 12an. Aita medikua zuen, eta aitona Erasmus Darwin mediku eta poeta famatua.

Gaztetan Charles Darwin ez zen ezertan nabarmendu. Lehenbizi medikuntza ikastera bidali zuten, baina lanbide horretarako joerarik ez zuen erakutsi. Gero apaiz anglikano izateko asmoz teologia ikasten saiatu zen, baina apaizgorako zaletasunak joan egin zitzaizkion azkenean, aldi berean Natur Zientzietarakoak bere baitan indar hartu zutelarik.


1831. urtean *Beagle* izeneko itsasuntzia munduari itzuli osoa emateko prest zegoen eta ikerketa zientifikoak egiteko bidaia hartan naturalista gisa joan zedin leku bat eskaini zioten Darwini. Darwinen aitak semeari ez zion joaten utzi nahi, baina osaba Josiah Wedgwood-ek auzian parte hartu zuen eta Darwin azkenean munduan zehar abiatu zen *Beagle* untzian. Itsasoan asko sufritu zuen noiznahi mareatuta ibiltzen zelako. Baliteke gainera orduan tripanosomasis izeneko gaitza harrapatzea, zeren eta gero bere bizitzan izan zituen sintoma kronikoek horixe adierazten bait dute. Dena dela,

Darwinek bost urteko bidaia osoa burutu zuen; biologiaren historian sekula izan den bidaiarik garrantzitsuena dudarik gabe.

Bidaian Hegoamerikako kostan desplazatu ahala, espezieak poliki-

poliki aldatu egiten zirela ikusi zuen. Galapagos artxipelagoko irletan bost aste eman zituen eta hango animaliez egindako ikerketak izan ziren gero garatuko zuen teoriaren funtsa.

Irla bolkaniko haiek Ekuadorreko



Charles Darwin eta bere semea William

kostatik mila kilometro ingurura zeuden eta bertan dortoka erraldoiak aurkitu zituen. Garrantzi berezia bertako txori batzuek izan zuten ordea; txonta izenekoeak. Irla haietako txontak berdintsuak ziren, baina berdinak ez. Gutxienez hamalau espezie zeuden, batabestearengandik zerbait desberdintzen zirelarik. Txontamota haiek kontinentean eta munduan beste inon ez zeuden eta hamalau espezie desberdin haien ekintza bereziren batez han sortu zirela esateak ez zirudien arrazoizkoa. Darwinek beste era batera pentsatu zuen. Kontinentean txonta haien antzeko beste espezie batzuk bazედenez gero, haiek kolonizatuko zituzten iriak eta gero ondorengoek eboluzioari esker forma desberdinak hartuko zituzten.

Ondorengo eboluzioa zergatik gertatu zen ez zekien Darwinek 1836. urtean bidaiari amaitu zenean. Ingalaterrara itzulitakoan bidaiari buruzko liburu naturalista bat prestatu zuen eta koralezko arrezifeez ere bai beste bat. Arrezifeak koralen eskeletoak pilatuta sortu zirela iradoki zuen, aldi berean itsasoaren hondoa jaitsi zatekeelarik. Arrakasta handia izan zuen teoria hark.

Darwin 1839. urtean bere lehen-gusu Emma Wedgwood-ekin ezkondu zen. Garai hartan Londresen zuen bizilekua eta han Geologi Elkarteko idazkari izan zen.

Darwinek Malthus-ek biztanleriaz egindako liburu famatua irakurri zuen ordurako. Hark zioenez, gizakien kopurua janariaren baino azkarrago ari zen ugaltzen eta azkenean biztanleriak murriztu beharra edukiko zuen gosez, gaitzez ala gerraz.

Darwinek ideia hori edozein izakiri aplikatzea pentsatu zuen. Lehenengo suntsituko zirenak, janaria lortzeko lehian abantailarik gutxien zutenak izango ziren. Galapagos Irlatan adibidez, haziak bilatu eta jateko txonta egokienek iraungo



Darwinen karikatura (1871). **Espezieen jatorriaz delako liburuak polemika latza sortu bazuen ere, Gizonaren deszendentzia eta sexuarekiko hautespenaren ondoren, Darwinek gizakia tximinoarengandik eratorri zela irakasten zuela uste zuen jenderik gehienak. Alabaina, usteak erdia ustel.**

zuten eta besteak hil egingo ziren. Baina zer gertatuko litzateke txonta batzuk hazi handiagoak ala in-tsektuak jateko gai balira? Gaitasun berri hori zutenek iraun egingo zuten eta besteak desagertu egingo ziren. Naturak, hautespen naturalaren bidez espezie batzuk aukeratu egingo zituen, beste batzuk baztertuz. Eboluzioa esplikatzeke arrazoi nagusia hautespena zela konturatu zen Darwin.

Darwinek urte asko eman zituen bere teoria lantzen eta frogak gisa datuak biltzen. Bere lagunek baze-kiten zertan ari zen eta eboluzioaren ideia biologoen artean gero eta gehiago entzuten zenez gero, bere lagun Lyell geologoak liburu bat argitaratu zezan eskatu zion. Alfred Wallace naturalistak gainera, idatzi berria zuen lan bat Darwinek ideia berdintsuak adieraziz.

“Linnaean Society” elkarteko aldizkarian Wallace eta Darwinek artikulua bana argitaratu zen eboluzioaren teoriari 1858.ean. Darwinek ordea, 1859.ean bere liburu famatua eman zuen argitaratu: *On the Origin of Species (Espezieen jatorria...)* izenekoa. Argitaratutako


egunean agortu ziren liburu guztiak eta hurrengo berrargitarapenak ere berehala erosi zituen jendeak.

Darwinek liburuak plazaratu onduko, eztabaida luze bati eman zitzaien hasiera. Bibliak zioenari Darwinek teoriak kontra egiten zirela pentsatu zuten batzuek; erlijio-arentzat galgarria zela alegia. Darwinek eboluzio-teoria ez zion zuzenean gizakiarik aplikatu bere liburuan, baina irakurleek landare eta animaliez zioenaren giza jatorriaz lotzen zuten.

Zientzilari zein ez-zientzilarien artean eztabaida mingotsak urteetan luzatu ziren, baina Darwinek ez zuen haietan zuzenean parte hartu. Hark datu eta frogak biltzen segitu zuen, 1871.ean *The Descent of Man (Gizonaren deszendentzia)* izeneko liburuak argitaratu.

1882. urteko apirilaren 19an hil zen Darwin Londres ondoko Down herrian, baina eztabaidak eztabaia ordurako bere hautespen naturalezko eboluzio-teoriak bide luzea ibilia zuen eta pertsonaia ospetsu gisa Westminster abadian ehortzi zuten, Newton, Faraday eta bere lagun Lyell-en ondoan. ■

ZIENTZIA ETA NATURA



- 1. Animalia migratzaileen abenturak**
J. I. Abrisketa (174 or.)
- 2. Euskal dinosaurusuak**
A. Martinez Lizarduikoa (232 or.)
- 3. Hautsi ditugu kateak, espaziora goaz**
I. Irazabalbeitia (224 or.)
- 4. Erleen bizitza ezkutua**
Martxel Aizpurua (200 or.)
- 5. Balea eta euskaldunak**
Murgil eta Sarda taldeak(274 or.)

Harpidedun egin zaitez gure liburuak merkeago lortuz.

HARPIDETZA-TXARTELA

Izen-deiturak _____

Helbidea _____ Tel. _____

Herria _____ Post.Kod. _____

Bankua/Aurrezki-Kutxa _____

Sukurtsala _____

Kontuaren Zenbakia _____

GAIK argitaldaria / S.Bartolome, 36-behea / Tel. 471304 /
20007-DONOSTIA